AYUNTAMIENTO DEL CONCEJO
DE SOPUERTA
BIZKAIA

SOPUERTA KONTZEJUKO UDALA
BIZKAIA

Núm. ............................ Z. ............................

# **** IRAGARKIA ****

## GAIA: SOPUERTAKO UDALAREN 2017ko APARTEKO GIZARTE LARRIALDIKO LAGUNTZAK

Udalerri honetako herritarrei jakinarazten zaie Udalak onetsi egin dituela 2017. urterako aparteko gizarte-larrialdiko udal-laguntzak arautzen dituzten oinarriak.

Diru-laguntza horiek ez dira aldizkakoak eta aurreikusi gabeko gastu zehatz, premiazko eta atzeraezinei aurre egiteko behar adina baliabide ez duten Sopuertako pertsonei eta/edo familia-unitateei ematen zaizkie, baldin eta beste edozein gizarte-laguntza arruntek gastu horiek estaltzen ez baditu (DSBE, GLL...).

Onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Sopuertan erroldatuta egotea gutxienez 2017ko urtarrilaren 1etik.
- Adinez nagusia izatea.
- 2017an Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta orokorra (DSBE) jasotzea edo familia- nahiz bizikidetza-unitatearen diru-sarrerek oinarrietako I. eranskineko taulan agertzen diren irizpideak betetzea.

**<u>Eskaerak Udalaren bulego orokorretan aurkeztu ahal izango dira, 08:30etik 14:30era. Azken eguna 2017ko abenduaren 15a izango da.</u>**

Sopuerta, 2017ko abenduaren 4a

ALKATEA

Emilio Reina Laiseca

AYUNTAMIENTO DE SOPUERTA
SOPUERTAKO UDALA
Registro General
Erregistro Orokorra

-5 DIC 2017

| Entrada-Sarrera | Salida - Irteera |
|---|---|
| Núm.: Zkia.: | Núm.: Zkia.: 3143 |

Sopuerta Kontzejuko Udala·Mercadillo, 48·48190 SOPUERTA (Bizkaia)·C.I.F.: P-4810000-B·Tel. 94 650 40 52·Fax 94 650 40 02·E-mail: ayto@sopuerta.biz